

Eskola Txikien Topaketak

Kirola bultzatuz, bat egin dute Tolosan ▶ 5



Aske utzi dute Jon Tapia preso zizurkildarra, 22 urte kartzelan izan ostean

KALEA ▶ «Kartzelako iluntasunetik argira» bidaia egiten ari zela esan zuen Tapiak espetxetik irteterakoan

OMENALDIA ▶ Atzo egin zioten lehen harrera herrian; Joxe Arregi plazan egingo diote nagusia etzi ▶ 5



Jon Tapia zizurkildarra. HITZA

LEIRE MONTES



'Turismoa Tolosaldean' jardunaldi berriak abian dira

TOLOSA ▶ Tolosaldea Garatzenek antolatu ditu eskualdeko Plan Estrategikoa lantzeko helburuarekin ▶ 3

TOLOSA ▶

Juan Lekuona josulaguna zendu da ▶ 6

ERLIJIOA ▶



Jose Antonio Gorriti Goldaratzena sakramentinoa. J.SAIZAR



Manuel Aranguren Pagola frantziskotarra. J.SAIZAR



Jose Manuel Eizmendi Garaialde apaiza. J.SAIZAR

50 urte apaiz

Tolosaldean aritutako lau apaiz iritsi dira urtemuga horretara;
HITZAK horietako hiruren esperientzia eta iritziak jaso ditu

JOXEMI SAIZAR

Erraz esaten da, 50 urte apaiz. Lehengo astean bildu zen 1955ean Gipuzkoan apaiz egin zen belaunaldia Donostian. 28 apaiz eta 8 fraide guztira. Tartean Tolosaldean aritzen diren edo urtetan aritu diren lau: Jose Manuel Eizmendi Garaialde eta Jose Uranga Iturrioz apaizak eta Manuel Aranguren Pagola frantziskotarra eta Jose Antonio Gorriti Goldaratzena sakramentinoa. Horietako hirurekin egon da HItza bere esperientzia ezagutzeko. Urtetan Tolosako Santa Maria parrokian ari den Jose Uranga legorretarrak nahiago izan zuen prentsan ez ateratzeko eta bere nahia errespetatu dugu. Tolosaldeko beste bat ere iritsi da 50 urte betetzera: Lazkaoko beneditarren artxi-boaren arduraduna den eta lehen ere orrialde hauetan atera den Juan Jose Agirre Begiristain alegiarra.

Apaiz sartu eta bizitza osoa horretan eman dute, «beste edozein lanetan bezala», diote-nez. Kontzilioaren ondoren apaiz askok Eliza utzi zuten, baina ez da belaunaldi honen kasua.

Apaiz basatua

Jose Antonio Gorriti (Oderiz, Nafarroa, 1931) Juan eskultore ezagunaren anaia da. Berak ere badu eskulanetarako zale-tasuna: egur tailan eta bas-toiak egiten aritzen da. Historia gaiak irakurtzea eta kirola oso gustuko ditu. Berazubiko stadiumean atletismo kronometratzaile gisa hamabost urte egin zituen. Larraun bailaran jaioa, aita mendiko goardia zu-

ten eta txikitan Betelura joan ziren bizitzera. Aralarko San Miguelen meza-mutil izan zen. Inguru hura ondo ezagutzen du eta duela urte gutxi *Aralarko eguzki-loreak* liburua idatzi zuen, bere marrazki eta argazkiekin, aurrena euskaraz eta gero gaztelaniaz, leku berezi horren historia jasoz.

«Bokazioa aitak eta amak izaten dute, ez seme-alabek. Aitak seminariora bidali nahi ninduen, baina Iruñekora joateko gaztelania jakin behar zen eta nik ez nekien. Horregatik joaten nintzen San Miguclera, han apaiz erdaldun bat baze-goelako. Baina 1942an San Migucl erre egin zen eta etxera itzuli nintzen. Ikasi nuen gaztelania pixka ahaztu egin nuen», azaltzen du. Arribera Lehen Jaunartzea ematera joan zen Casimiro Egues sakramentino elduaindarrak aitari esanda etorri zen Tolosako Sakramentinoen seminariora. «Arantzazura bidali nahi ninduen, baina urrutu samar zegoen», dio. Iruñean, Tolosan eta Areatzan ikasketak egin ondoren egin zen apaiz 1955ean.

Iruñea izan zuen lehen destinoa. Eskola batean aritu zen irakasle. Handik Tolosara etorri zen eta hemen egin ditu urte gehienak. Tartean, bost urte Madrilén egin zituen medikuntza ikasten. «Apaiz basatua naizela esaten dut beti. Medikuntza gaiak asko irakurri ditut beti eta hori ikastea erabaki nuen», dio Gorritik. Etorri eta Iurreamendiko kapilau izendatu zuten eta hamabost urte egin ditu horretan, erretiratu arte. Goizeko meza ematen jarraitzen du. Aita Santu berriaz «estu samarra» dela uste du eta «atzerako» duela.

Erabateko bokazioa

Manuel Aranguren (Aginaga, Usurbil, 1931) «erabateko bokazioagatik» egin zen frantziskotarra, nahiz eta aurrekaririk ez izan familian eta herrian. Iguaran fraide alkizarra hitzaldia ematera joan eta Arantzazura inork joan nahi al zuen galde-tuta, besoa altxa zuen.

Hamaika urte zituela joan zen. 42 mutil ziren. Hamahiru urteko ikasketak egin zituen Arantzazun, Foruan, Zarautzen eta Erriberin. Azken hauek izan omen ziren gogorrenak: filosofia ikasi, ordu asko, klima gogorra... Arantzazun orduan zegoen giroa aipatzen du: koro oso ona, erromes talde asko, euskararen aldeko giroa... «Gure garaian oso zaila zen euskararen alde aritzea. Baina baziren fraide oso euskaltzale batzuk, Demetrio Garmendia berrobitarra, adibidez. Askok aldatu da hori, hoberako», adierazten du.

Apaiztu ondoren, Zarautzen eta Bilbon aritu zen, baina urte gehienak Tolosako San Frantziskon daramatza. 1978an etorri zen. «Orduan Santa Maria eta Korpus Kristi ziren parrokia bakarrak Tolosan. Setien gotzainak mankomunitatea sortu nahi zuen eta San Frantzisko hor sartu zen. Parrokia baten zerbitzuak eskaintzen hasi ginen eta hor sartu nintzen buru-belarri Iñaki Bereziartua eta Inocencio Urbisondori laguntzen», esan du. Bereziartua 1997an joan zen eta orduetik Aranguren izan da San Frantziskoko arduraduna.

«Haur eta gazteekin katekesi lanetan aritu naiz asko. Lana egin beharra, baina gustura», dio. Komunitateak eman dion

«babesa» azpimarratzen du. «Pena handia» hartzen du gazte kopurua asko jaitsi dela ikusita. Probintziako zaindari ere bada, lehen bederatzit urtez izan zen eta orain beste bederatzit egingo ditu. «Kristau izateko elkarteko bizitza inportatzen da, bost axola Aita Santua eta kardenalak. Jesusen bizitza imitatzea da kristautasunaren indarra, behartsuekin eta baztertuekin lan egitea. Lan asko egin dute apaiz eta sekular asko daude», dio aginarrak.

Setien idazkaria

Jose Manuel Eizmendik (Alegia, 1929) Abaltzisketan —16 urtez—, Ibarran —8 urte— eta Donostian Jose Maria Setien gotzainaren idazkari pertsonal gisa —20 urte— eman ditu bere apaiz bizitzako urte gehienak. Donostian, Bergaran, Sa-turraranen eta Gasteizen egin zituen apaiz ikasketak. «Etxean —Eizmendi tabernakoa da— Lukas Guridi apaiz azpeitiarra bizi zen gurekin, gerra ondoren desterraturatua abertzale izateagatik. Hura etxean ezagutzeak ni seminariora joateko zerikusia izango zuela pentsatzen dut. Familian fede giroa bazen», dio. Oroimen onenak Gasteizkoak ditu, «adinean aurrera zoazela gehiago jabetzen zara eta erabakia seriozoki hartzen duzulako».

Apaiz egin berritan Abaltzisketara joan zen. «Ilusioarekin hartzen duzu lehen herria. Esperientziarik ez daukazu eta hanka sartuz ikasten joaten zara», azaldu du. Ibarrara joan zenean «jauzi handia» izan omen zen: herri handiagoko, asko hazi zen garai hartan, Se-

J. ANTONIO GORRITI SAKRAMENTINOA

«Bokazioa aitak eta amak izaten dute, ez seme-alabek; aitak seminarioren batera bidali nahi ninduen»

MANUEL ARANGUREN FRANTZISKOTARRA

«Kristau elkarteko bizitza inportatzen da: Jesusen bizitza imitatzea, behartsuekin lan egitea»

JOSE M. EIZMENDI APAIZA

«Ilusioarekin egiten baduzu lan, erraz pasatzen dira 50 urte; hotzberoak izaten dira lan guztietan bezala»

bas Goikoetxea hil zuten eta giro baketsua «aldrebestu» zen... Lankide izan zuen Manolo Solozabal apaiz zizurkildarra gogoratzen du bereziki.

Ondoren Donostiara joan zen, Jose Maria Setien gotzainaren idazkari pertsonal gisa. «Lan asko egin du Setienek. Barren aberatsa eta buru argia du, guztiz leiala da eta erasoaldi asko izan ditu».

Antiguoko parrokian eta Gurutze Gorrian laguntzen du orain alegiarrek. Erljio gaik irakurtzea gustatzen zaio. «Ilusioarekin egiten baduzu lan, erraz pasatzen dira 50 urte. Hotzberoak izaten dira, lan guztietan bezala. Jainkoari esker iritsi gara eta ez da gutxi». Aita Santu berriaz hala dio: «Oso argia da, jakinduria handikoa, ez dakit zergatik, baina zenbaitek uste duen baino jorkabide jatorragoa izango duela iruditzen zait, gaurko arazok argitzen saiatuko dela konfiantza osoa daukat».

ERLIJIOA ▶

'Gaixoen igurtzia sakramentua' Santa Marian

Bihar Gaixoen Eguna dela eta, *Gaixoen igurtzia sakramentua* ospatuko dute, gaur, Santa Maria parrokian, 17:00etako Eukaristian.

ZIKLOTURISMOA ▶

110 kilometroko ibilbidea, bihar, Marraskilokoek

Igandero legez, bihar ere irteera egingo dute Marraskilo taldeko zikloturistek. Tolosatik atera, Astigarragatik Artikutzara joan, Oiartzun pasatu, eta Andoain eta Alkiza zeharkatuz itzuliko dira Tolosara. Guztira, 110 kilometroko ibilbidea osatuko dute. 08:00etan abiatuko dira, egoitzaren aurretik (Berazubi auzoa).

MUSIKA ▶

Tolosako Orfeoiaren saioa, gaur, Donostian

Tolosako Orfeoiak kontzertua eskainiko du gaur, 19:30ean, Donostian, Kutxaren Andia kaleko egoitzan. Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean, *Tolosa-Donostia nuestros autores* emanaldia prestatu du. Tolosako eta Donostiako egileen lanak aukeratu ditu saiorako Orfeoiak; eta, kanta bakoitzari ekin aurretik, obraren azalpena emango du Manex Urruzola tolosarrak. Abesbatzak Borja Rubiñosen laguntza izango du pianoan.

HIRUGARREN ADINA ▶

Harizpek oporrak antolatu ditu Calellara

Harizpe jubilatuena eta pentsioidunen elkarteak Calellara (Katalunia) oporrak antolatu ditu, maiatzaren 21etik ekainaren 4a arte. Izen-ematea zabalik da elkartearen. Bazarreko 339 euro ordaindu behar dituzte, eta gainontzekoak 345. Izena ematerakoan 100 euro ordaindu beharra dago; beste guztia txartela jasotzean entregatuko da. Autobusa, egonaldia mantenu osoan, bidaia aseguru eta gida zerbitzua prezioaren barne daude.

TURISMOA ▶

'TURISMOA TOLOSALDEAN' I. JARDUNALDIAK ▶ HIRU SAIOAK

MAIATZAK 9, ASTELEHENA

18:30-19:00. Dokumentazio banaketa eta jardunaldien irekiera. Hizlaria: Koro Garmendia Eusko Jaurilaritzako Turismo sailburuordea eta Jokin Bildarratz Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria.
19:00-19:45. *Tolosaldea: T duen turismoa.* Tolosaldeko Turismoaren Plan Estrategikoa. Jon Arrugaeta (SIADECO).

19:45-21:00. Bateratze lana: lehen ikuspegi partekatua.
21:00-21:30. Ondorioak.

MAIATZAK 10, ASTEARTEA

18:30-19:00. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarte sailako Angel Irastorzaren jarduna.
19:00-21:00. *Turismoaren eta hirigintzaren arteko erlazioa; hirigune historikoak*

berreskuraketetarako jokatzen duen paper erabakigarria.
Hiriko ordenantzen garrantzia turismoaren garapenerako.
Hizlaria: Jose Mari Ezkiaga arkitekto doktorea eta Soziologia eta Zientzia Politikoetan lizentziatua.
21:00-21:30. Ondorioak.

MAIATZAK 11, ASTEAZKENA

18:30-18:45. Aurkezpena.

18:45-19:45. *Ourenseko Concello de Allariz-eko turismo apustuaren esperientzia.*
Hizlaria: Cristina Cid Fernandez Sustapen Ekonomikoko zinegotzia.
19:45-20:45. *Baliabide naturalen kudeaketa eta turismoa.* Hizlaria: Iñigo Doria Arko Atlantiko-ko Consultin Manager-a (THR).
20:45-21:30. Azken ondorioak eta amaiera.

Garapenerako oinarriari so

'Turismoa Tolosaldean' I. Jardunaldiak antolatu ditu Tolosaldea Garatzenek; eskualderako Plan Estrategikoa lantzea dute xede, «denon parte-hartzearekin»

LEIRE MONTES

«Turismoaren sektorea gero eta garrantzi handiagoa ari da irabazten, eta hiriburuek egiten duen eskaintzari beste batzuk gehitu zaizkio; hala nola, Tolosaldeak egiten duena». Aro berri bati ekiteko asmoz, eta turismoaren garapenerako oinarriak finkatzea helburutzat hartuta, Turismoa Tolosaldean I. Jardunaldiak antolatu ditu Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak. Maiatzaren 9tik 11ra izango dira saioak, Kultur Etxean. «Tolosaldeko turismoaren Plan Estrategikoa lantzea» tresna izan nahi dute.

Bernardo Goikoetxea Tolosaldea Garatzeneko gerenteak jardunaldien aurkezpenean azaldu zuenez, «turismoak zuzenean eragiten du ostalari-tzan, jatetxeetan eta zerbitzuetan. 700 establezimenduetan 1.000 lanpostu inguru sortzen dute horiek eskualdean». Turismoaren aldeko apustuan aurrerapausoak eman nahian, «turismoarekin zerikusia duten guztientzat» antolatu dituzte jardunaldi hauek: «Merkataritzako, jatetxeetako eta ostala-



Ezker-eskuin: Goikoetxea, Bildarratz eta Iztueta, herenegun. L. MONTES

ritzako arduradunentzat, hirigintza eta turismo teknikarientzat, kultura eta tokiko garapenerako udal teknikarientzat, eta herritarrentzat, orohar. Denon parte-hartzea ezinbestekoa iruditzen baitzaigu».

Hiru saiotan banatu dituzte jardunaldiak. Hasteko, Tolosaldeko Turismoaren Plan Estrategikoa jarriko dute mahai gainean, «egin daitezkeen iradokizunak eta ekarpenak jasotzeko itxaropenarekin». Bigarren saioan, «turismo proiektu bat abian jartzeko alderdirik garrantzitsuenetako bati» ekingo diote: hirigintzaren alorra. Hirugarrenean, azkenik,

arrakasta izan duen esperientzia bat aztertuko dute: Ourenseko (Galizia) Allariz herriarena. Baliabide naturalak turismoari bideratuta kudeatzeko moduak ere izango dituzte hizpide.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatearen eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariaren esanetan, «Tolosaldeko turismoak izaera berezia du, eta eskaintza lau ardatzetan oinarritzen da: ondare historikoa, natura, kultur eskaintza eta zerbitzuak». Hala, turismoak planifikazioa behar duela azpimarratu zuen: «Horregatik dira garrantzitsuak jardunaldi hauek. Plan

Estrategikoa osatzeko baliagarri izango dira. Baita marka berri bat sortzeko ere, eta zerbitzu egokiak finkatzeko. Etorritzen diren turistak gurera itzultzeko gogoa izatea lortu behar dugu denon artean».

Josu Iztueta bidaiaria eta abenturazalea ere izan zen jardunaldien aurkezpenean. «Lurralde pribilegiatuan» bizi gara rela azpimarratu zuen tolosarrak, batera eta bestera begira, Zerkausiko terrazatik —han egin zuten agerraldia—. «Azken 25 urteak hemendik kanpo pasatu ditut, hemengo jendea-ri lurralde asko ezagutarazten. Baina beti bueltatzen naiz. Zer nolako zorrea dugun pentsatzen dut. Hona datorren jendea harrituta gelditzen da dugunarekin. Gune industrialera gara, baina landa erroak ditugu. Historia gustatzen bazaigu, gertu dugu; baita arte garaikidea ere. Mendia, gastronomia... Askok ikusteko ez dugu asko mugitu beharrik». Aberastasun horretaz jabetu eta besteei ezagutarazteko «aitzaki aparta» izango dira I. Turismo Jardunaldiak. Izena eman edo informazio gehiago jaso nahi duenak 943 69 74 13ra deitu besterik ez du.

hilberriak ▶

III. URTEURRENA
Juana Peñagaricano Errondosoro
(Fermin Salaberria Mocoroaren alarguna)

— Goian bego —

Zure seme-alabak Maria Jose eta Ricardo San Sebastian, Begoña eta Paco Gabarain, Paco eta Maria Pilar Agirrezabalala, eta Irene eta Miguel Otamendi; ilobak eta gainerako ahaideak.

BIHAR, IGANDEA, SAN FRANTZISKOKO elizan, eguerdiko 12:00ETAN, urteurreneko mezara gonbidatzen zaituzte.

TOLOSA, 2005eko apirilaren 30a

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

I. URTEURRENA
Juana Izagirre Irigoien

BIHAR, 11:00ETAN,
meza KORPUS KRISTI parrokian.

TOLOSA, 2005eko apirilaren 30a

ZIZURKIL ▶ EUSKAL PRESOK

Jon Tapia atzo iritsi zen herrira 22 urte preso eman eta gero

«Kartzelako iluntasunetik argira» bidaia egiten ari zela bizitu zuen etxera zihola

IMANOL GARCIA

Jon Tapia zizurkildarra atzo goizean utzi zuten aske, Espainiako hainbat espetxeetan 22 urte preso eman ondoren. Goizean, 09:10ak inguruan ateraz zen Puerto de Santa Maria I espetxetik (Cadiz, Espainia). Bertan sei urte eta erdi eman zituen Tapiak eta azkeneko minutuak «urduritasun puntu batekin» igaro zituen: «Espeketik beste lau kide ateratu dira aurretik eta horiek goizeko zortzietan askatu zituzten. Pixka bat moskeatzen hasi naiz zortziak jo dituenean, oraindik espetxean nengoela ikusita».

Eguerdian hitz egin ahal izan zuen HITZAK Jon Tapiarekin, Zizurkilera bidean zela. «Kartzelako iluntasunetik argira» bi-

daia egiten ari zela esan zuen eta «Ama Lurra ikusteko gogo» zuela. Orain hamar bat egun jaso zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak bidalitako agindua, hau da, aske uztearena. Azken egunak gauzak presatzen eman zituen eta espetxeko azken gauan ezin izan zuen ia lorik egin.

Puerto de Santa Maria I espetxean izan aurretik, hamar urte eman zituen preso Kanariar Uharteetako Salto del Negro kartzelan. «Nahiko gogorra izan ziren Salto del Negron igarotako urteak. Beste ikuspegi batekin hartu nituen Puerto de Santa Marian izandakoak; azken kartzelaldia nahiko barea izan da». Oraindik espetxetan dauden euskal preso politikoak gogoan izan ditu zizur-

kildarrak espetxean eman dituen 22 urtez hitz egiterakoan.

Herritarren babesa

«Herritarrek, batez ere ezker abertzaleko kideek, eman ditzaten babesari esker erosoagoa izan da kartzelan emandako denbora», azaldu zuen atzo Jon Tapiak. Ez da omenaldien zale. «Nik baino gehiago, hildakoei merezi dute» zehaztu du, eta «nik egin behar diet omenaldia aterpea, babesa eta maitasuna eman didatenei».

Zizurkildarrari atzo gauean egin zioten lehen ongietorria Joxe Arregi plazan —ordurako HITZAKO erredakzioa itxita zegoen—. Aurretik Etxegaraten bildu ziren hainbat lagunek herrera egin zioten, eta autokara-

banan heldu ziren herrira. Etzi omenaldi nagusia egingo diote Joxe Arregi plazan. Amets Arzallus eta Oihane Enbeita bertsolariak, txalapartariak, Anje Duhalde, Iker Goenaga eta abarren parte-hartzearekin izango da, 12:00etan hasita, eta ondoren bazkaria egingo dute ekitaldira bildutakoek.

Egungo egoera politikoari buruz galdetzean, «hauteskundeetan emaitza ezinhobeak lortu ditugu», erantzun du Tapiak. Alderdi bat bozkatu ahal izateaz poztu egin zen, «balio gabeko boza ematea ez baita oso itxaropentsua». Hala ere, etorkizun iluna ikusten du: «Buru-belarri ari dira ilegalizatu nahian eta udal hauteskundeetarako egin egingo dute ziurrenik».

ANOETA ▶

Euskal Festa egingo dute gaur Bodegon Benta ondoan

Idi eta asto apustua, aizkolari saioa, harri jasotzaileak, sega eta trikitixa izango dira

I.GARCIA

Gaur ospatuko dute Anoetan Euskal Festa Bodegon Benta ondoan, 12:00etan hasita, beraz, askotariko probak izango dira ikusgai.

Egingo diren proben artean, bi apustu nagusituko dira, idi eta asto apustua bata eta aizkolarien artekoa, bestea. Lehenengoan, idi pare bi itzaiekin 2.000 kiloko harriarekin lehiatuko dira nor baino nor eta ondoren astoa sei itzaiekin kilo berdinetan.

Aizkolarien arteko apustuan, Mikel berrobatarra eta Eraso belautzarra Jokin Garmendia eta Ifiakiren aurka lehiatuko dira hiru kanardiko ebaki beharko dituelarik bakoitzak.

Bi apustuen tartean harri-jasotzaileak ikusi ahaliko dira, eta baita sokatira eta sega probak ere. Eta behin proba guztiak amaituta Bodegon Benta bazkaria egingo dute umore onean. Bazkarian musika ere izango da, Luluaga eta Lierni trikitilarien esku-tik, hain zuzen ere.

LARRAITZ ▶

Bihar izango da Aralarko larreen irekiera

I.GARCIA

Bihar festa giroa nagusituko da Larraitzen, Aralarko larreen irekiera egingo baita. 10:00etan hasiko da festa trikitilarekin. 11:00etan artzai zakurren proba izango da eta 12:00etan izango da larreen irekiera. Jaia girotzeko Ansa ahizpa abeslariak jardungo dute, eta Gilermo Seguroa txiste kontalaria, Alaitz Sarasola eta Bixente Gorostidi bertsolariak eta Elosukorta harri-jasotzailea ere ariko dira. Abere erakusketa eta eskulangileak izango dira baita ere.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Onddo Gaztetxearen I. urteurrena ospatzeko ekitaldien hasiera, bihar

Txupinazoa botako dute 18:00etan eta gero talo ikastaroa egingo dute Gaztetxean bertan

ERREDAKZIOA

Villabonako Onddo Gaztetxearen I. urteurren ekitaldiekin hasiko dira bihar. Maiatzean zehar, hilabete guztian, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte. Bihar bertan, 18:00etan txupinazoa botako dute, eta, segidan, taloak egiten ikasi ondoren, talojatea egingo dute Gaztetxean.

Datorren asteko ekitaldiak asteartean hasiko dira: 19:00etan, mendiari buruzko hitzaldia izango da. Asteazkenean, zineklub saioa izango da, 22:30ean, *Carandiru* filmarekin. Ostiralean, musikaren ordua izango da. 22:30ean hasitako, Kalekumeak taldeak eskainiko du kontzertua. Larunbatean, maiatzak 7, egun guz-



Aurreko urtean Onddo Gaztetxean egindako ekintzetako bat. G. AZKUE

tian zehar izango dira ekitaldiak. Goizean buruhandiak; arratsaldean haurrentzako jokoak eta ondoren txokolate-ja-

tea. Bertso-afaria egingo dute eta amaitzeko musika kontzertuak izango dira. Nekin eta Tuboskapi taldeekin.

**BAILARAKO
ESKAITZARIK
ZABALENA**

ORIXE
Bigarren Hezkuntzako Institutua

BATXILERGOA
Teknologia
Natura eta Osasun Zientziak
Gizarte eta Giza Zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
Natura inguruneke kirol ekintzen gidaritza

943 65 13 87
E-mail: 012980aa@hezkuntza.net www.orixe.net

Aurrematrikula: Batxilergoa: apirilaren 25etik maiatzaren 6ra / Erdi mailako zikloa: Ekainaren 1etik 8ra

**TOLOSALDEA,
LASKORAIN IKASTOLA,
ZEURE AUKERA.**

Telf.: 943 69 71 22

- Kalitatezko heziketa euskalduna
- Tolosaldeko gazteen Bigarren Hezkuntzarako ikastola.
- Unibertsitateko bide guztiak irekiko dizkizun ikastola.

Batxilergoko eskaintza zabala duelako:
**TEKNOLOGIKOIA
NATURA ETA OSASUN ZIENTZIAK
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK**

ESKOLA TXIKIEN TOPAKETAK ▶



Erreleboen probaren barruan laguna bizkar gainean eramaten zuten 12 eskoletako gazteek. NOELIA LATABURU



Airea zeharkatu nahi izan zuten, ea nor urrutiago heldu. N. LATABURU



Sokatiran ere gogotsu aritu ziren neska-mutilak. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Eguraldiak ez zuten atzokoan Eskola Txikien III. Topaketa zapuzterik izan eta giro alaian garatu zuten jardunaldia Tolosako Berazubi estadioan. Guztira eskualdeko 11 eskola txikitako 8 eta 12 urte bitarteko 160 ikasle inguru bildu ziren —Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Ikaztegieta, Lizartza eta Zizurkilgo eskolak—; Gabiriako eskolakoek ere topaketarekin bat egin zuten Berazubin.

Era guztietako probetan lehiatu ziren gaztetxoak 10:00etan hasi eta 12:00ak bi-

Elkarkidetzaz sustatuz, lehiakortasuna uxatu

Tolosako Berazubin egin zituzten atzo Eskola Txikien III. Topaketak, eskualdeko 11 eskoletako ikasleen partaidetzaz

tarre, seiko taldeetan banatuta. «Eskola ezberdinetakoak nahastu ditugu euren arteko harremana bultzatzeko», azaldu zuten Itziar Olaskoaga Gipuzkoako eskola txikien koordinatzaileak. Eskola bakoitzeko

soinketa irakasleek guneen ardura hartu zuten, proben gainbegiraketa lana burutzeko: erreleboak —lokots bilketa, 60 metro korrika, zaku karrera, laguna bizkar gainean eraman eta pistaren buelta bukatzea—,

luzera jauzia, pisu jaurtiketa, sokatira eta pilota. Herri kirol eta atletismo proba horietan guztietan aritu ziren ikasleak.

Topaketa hauek egitearen egitasmoa helburu zehatz batzuekin sortu zen. Batetik, ikas-

leen arteko harremana bultzatzea. Bestetik, kirol praktika bera sustatzea, bai eta Tolosan antolatzen diren olinpiadetan parte hartzera animatzea ere.

«Aupa Iker; a ze jaurtiketa; salto bikaina!». Askotan entzun ahal izan ziren honelakoak eskola ezberdinetako ikasleen artean. Atzo ez zen galtzailerik izan Berazubin. Ez ziren elkarren aurka aritu; elkarrekin, baizik. Koordinatzaileak zein soinketa irakasleek «gazteen erantzun ona» azpimarratu zuten; izan ere, «denak datoz egoera beretik, herri txikietatik, alegia»; halaber, «oso gustura» azaldu dira topaketek emandako emaitzekin.

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Belauntzako kronikaren hiru pasarte

Urte osoa daramagu herriko tabernarik gabe. Aste honetan urtebete bete da Belauntzako herriko taberna itxi zigutene-tik. Eta itxita jarraitzen du oraindik.

Aurreko batean azaldu genuen alkatetza lapurtu zigutenek gauzak nola egin zituzten

eta zein aitzakia erabili zuten taberna ixteko. Tabernaren ar-dura zeukatenek epaitegieta-
ra jo zuten, eta noski, arrazoa eman diete. Horrek esan nahi du, agintean ari direnek gauzak gaizki egiteagatik herria bigarren aldiz zigortu dutela. Batetik, herritarrak biltzeko eta harremanak garatzeko lekurik gabe zaitu gaituzte (urtebete jada).

Eta, bestetik, epaileak kalteordaina (indemnitazioa) ordaintzera behartzen duela

Udala, hau da, herritar guztion patrikatik ateratako diruarekin. Atera kontuak.

Idazkaria joan egin da. Duela hilabete batzuk idazkari postua atera zuenak, Soniak, uko egin dio bere lanpostuari... Logika baten barruan, azterketak berriki izan badira, lanpostu hori betetzeko, eta egoera zuzendu arte, azterketa horretan bigarren geratu zenari deitzea izango litzateke normalena.

Baina, Udalak ez du hori

egin. Beste herri batean, denboraldi batez lanean egon den pertsona bat ekarri digute, aldameneko herriko idazkaria azterketan atzera geratu zen bat, hain zuzen ere.

Zer logika du horrek? Noren agindua bete ote dute Erroizpe-EAJ koalizioek?

Udalak opariak banatzen ditu lagunen artean. Udalak tribunaletara jo zuen Ramon Lopetegiren kontra, lursail bat zela eta. Aldai atzealdean da goen eta herritarren erabilpe-

nerako izan behar zuen lursailagatik, hain zuzen. Bada, hila-bete honetan, dekretu baten bidez, Udalak uko egin dio defendatzen ari zen horri, eta bere burua baztertu du auzitik. Orain, lursail hori Ramon Lopetegirena da. Opari eder-
rra!

Zerikusirik ote du EAJko kide izateak eta EAJko zinegotzi baten anaia izateak?

XABIER GOIKOETXEA SARASOLA
(BELAUNTZAKO SUSTRAIK HERRI PLATAFORMA) ▶ BELAUNTZA

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Juan Lekuona zendu da

Donostiako eta Loiolako Herri Irratiko zuzendari izan zen josulagun tolosarra

URTZI URKIZU/BERRIA

Juan Lekuona Urrutia (Tolosa, 1928) euskal irratigintzan 60ko eta 70ko hamarkadetan sustatzaile garrantzitsua izandakoa, atzo hil zen Iruñean. Gaur, 19:00etan, Azpeitian, Loiolako basilikan egingo dira haren omenezko hiletak elizkizunak.

Hamasei urte zituela Jesusen Konpanian sartu zen Lekuona eta euskal kulturaren murgildu zen berehala. 1962. urtean Loiolako Herri Irratiko zuzendari izendatu zuten —irratia sortu eta urtebetera— eta kargu horretan aritu zen zortzi urtez, 1970an Donostiako Herri Irratiko zuzendaritzara pasatu zen arte. Bi epetan izan zen Lekuona Donostiako Herri Irratiko zuzendari: 1970etik 1989ra eta 1993tik 2002ra. 72 urterekin erretiratu zen, eta azkeneko hiru urteetan Iruñeko San Inazio ikastetxean egon da bizitzan.

1962an Juan Lekuona Loiolako Herri Irratiko zuzendaritzara iritsi zenean bete bete harrapatu zuen Fragarren legeak, OMtik FMra aldarazi zituen, alegia. Euskarazko lehen emanaldiak iritsi ziren beran-



Euskal irratigintzaren sustatzaile garrantzitsua izan da Juan Lekuona josulagun tolosarra; atzo zendu zen. BERRIA

duago. Eta, 1976an, 24 Orduak Euskaraz ekimenaren antolaketan parte hartu zuen.

Bestetik, 70ko hamarkadan Herri Irratian ibilitakoek diotenez, ez zen garai gozoa izan Lekuonarentzat Itxumendiko an-

tena lehertarazi zieten. Gaitzak bete lan izan zuen trantsiziotik aurrerakoak kudeatzen ere.

Herri Irratian aritutako hainbat kazetariren arabera, Lekuonak askatasunarekin lan

egiten uzten zuen. Era berean, Euskadi Irratia eta beste irratik batzuk sortu zirenean, ondo hartzen zuen Herri Irratiak harrobi lana egitea kazetari-entzatzat.

1989. urtean Brasileria joan zen Lekuona, teologia ikastaro bat egitera. Handik El Salvadorrera heldu zen eta bi urtez indigenekin lan egiten duen Fe y alegría erakundeke zuzendaritzan aritu zen. Esperientzia horrek eragin handia izan zuen bere bizitzan, eta ondotik goizero entzuleentzat egiten zuen komentarioetan pobreez asko hitz egiten zuen.

1993ko azaroan, pertsona erabakiorra izan zen josulagun tolosarra Herri Irratia COPEtik banantzeko. Euskal munduari eta Jose Maria Setien gotzainari Herri Irratiak zion errespetuak eragin handia izan zuen haustura hura ulertzeko, COPEk beste ildo bat baitzeraman. Erretiratu zenean Lekuonaren kezka zen ea Herri Irratia gai izango ote zen bere nortasunari eusten, «herriari lotuak eta fedea eta justizia transmititzen». 76 urte zituela hil zen atzo, lan eskerga egin da.

IBARRA ▶

Ibarrak ostegunean jokatu du etxean

Peñucas-en aurka lehiatuko da; jubenilak Espainiako kopatik at geratu dira

I.TERRADILLOS

Ibarrak Peñucas-en aurka Belabieta kiroldegian igande eguerdian jokatu behar zuen partida azkenean atzeratu egin da eta datorren ostegunean 20:00etan jokatu da.

Ibarra areto futbol taldeko jokalaririk asko min hartuta daudenez, beste behin jubeni-len taldeko jokalariekin osatu behar zuen Cesar Roca entrenatzaileak taldea. Egunotan jubenilak Espainiako Txapelketa jokatzeko ari direnez, igandeko partida atzeratzea eskatu zuen etxeko taldeak. Lehiaketa batzordeak atzeratzeko aukera eman zuen; beraz, ostegunean jokatu ahaldu du Ibarra.

Bestalde, Lauburu jubeni-len taldeak atzo jokatu zuen Intervi Boomerang-en aurka Espainiako Txapelketa final-laurdenetako partida. 8-5 galdu zuten ibartarrek; beraz, txapelketatik at geratu dira. 5-5 berdindurik zeuden 3 minutu geratzen zirenean, baina azkenean txapelketako final-laurdenetako partida. 8-5 galdu zuten ibartarrek; beraz, txapelketatik at geratu dira. 5-5 berdindurik zeuden 3 minutu geratzen zirenean, baina azkenean txapelketako final-laurdenetako partida.

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

FORMAKUNTZA IKASTAROKAK (Langileentzat)

KUALIFIKAZIO PROFESIONAL EN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Zizaila, Plegatze eta Puntzoneatzea	40	2005-05-03	18 - 21
PLC-OMRON Automata programatze aurreratua	40	2005-05-09	18 - 21
Automatismo elektroteknikoak (KUADROAK)	40	2005-05-09	18 - 21
Torno CNC prestaketa eta programatzea	40	2005-05-03	18 - 21
PLC-SIEMENS Automata programatze aurreratua	40	2005-05-10	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 112 m². Berritua.

Salgai (Tolosa). Pisua handia Gorosabel 40ean. Garajea aukeran

Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².

Alokatzeko (Amezketak). 3 logelako pisua. Altzari eta garajearekin.

Alokatzeko (Alegia). 3 logelako pisua Altzariarekin.

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremontari kalean.

Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean eta Araba Etorbidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

Kontsu Taberna

festetako berezitasuna:
Arkume pikatxa tortila
Arkumea
Herriko mamia
festa onak pasa !!

OREXA • Tel.: 943682154

MENBEAUTY

MAIATZEKO IGANDE
GUZTIAK IREKITA

Aldez aurreko hitzorduarekin.
Orraztu eta makilatzeke

Oria 16 - behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 58 37

OIHAN TXIKI KOOP.

Gora Santa Kruzak! Modu naturalan egiten ditugu

Gazta Zaharra gure gazta eta mamiak
Ardi Gazta
Ardi Esnea
Mamia

Herriko Ekola
Tel. 943 68 22 14
Fax: 943 68 22 20
20400 OREXA

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrera jarraitzeko irabazi beharrean dira leitzarrak

Bihar dute Agoitzen aurkako itzuliko partidua, 17:00etan; 3 eta 0-eko emaitza lortzea nahitaezkoa dute segitzekotan

JAIONE ASTIBIA

igandean partidu erabakiorra du Aurrera futbol taldeak: igorerako ligaxkan jarraitzeko, itzulerako Agoitzen aurkako irabaztera derrigortuta dago, eta 3-0-ko aldearekin egin behar ere, aurreko asteburuan han jokatu zuena, aurka 2 gol jasota eta aurkariari batere sartu gabe bukatu zelako.

Lurraldeko lehen mailatik Gorengean mailara igotzeko ahaleginetan, lehen fasean, joan-etorriko partidu bakarra jokatzeko ari dira talde bakoitzeko lehen lau talde sailkatuak. Eta irabazleak igaroko dira hurrengo fasera. Horrela, Aurrerari, II. taldeko Agoitzen aurka aritzea egokitu zitzaion. Aurreko asteburuan jokatu zuten joanekoa: 2-0 bukatu zen.



Jokalariek, oraintxe behar dute zaletuen laguntza eta indarra. J. ASTIBIA

Zelaia egokia eta giroa ere ona izanik, jokalariek «oso urduri» zelairatu zirela adierazi zioten HITZARI taldeko ardura-dunek: «Gauzak presaka egin

nahia, edo egin behar horrek berak, ez zieten lan egiten uzten», zioten. Bertakoek joko onik egiten ez bazuten ere, leitzarrek izan zituzten akats pare

batez baliatuz, golak sartu zituzten, bat penaltiz. Lehendabiziko denbora erdirako jada markagailua erabakita zegoen. Ez zuten buelta ematerik lortu: «Gauzak zail samar gelditu zitzaizkigun», baieztatu zuten.

«Baina, indarrarekin gaude, animoz bizkor eta jokoz ere bai», adierazi zuten atzokoan Aurreratik, aste honetan egin dituzten lan-saioekin gustura ageri zirelarik. Eta eskuartearen duten partidua, «partidu zaila eta erabakiorra» dela aitortuz batera, «itxaropentsu» daudela ziurtatu zuten, betiere etxean jokatu dituzten partiduaren «oso joko ona» egin dutelako. «Ziurtasunez jokatu dugu, partidu onak egin ditugu eta garrantzitsuena, emaitza onak eskuratu ditugu», zioten. Horrela, «igandean [bihar], gure lana egitera aterako gara», adierazi zuten.

Orain, beraz, joaneko emaitza harri buelta emateko, irabazi egin behar da, eta 3 puntuko aldearekin egin behar ere, eta aurka bakarrik ere jaso gabe. Hango emaitza bera lortuta, partiduaeren luzapena jokatuko lukete, eta behar izanez gero, penalti jaurtiketa saioa.

Bestalde, zaletuei zelaia joateko «eskaera berezia» egin zieten, «Aurrerarekin aurrera egin dezagun», esanez.

LEITZA ▶ KULTURA

‘Los chicos del coro’ zine emanaldien azken saioan

Igandean proiektatuko dute, saio bakarrean; aurtengo denboraldia bukatutzat joko dute

J. ASTIBIA

Aurtengo zinema emanaldien denboraldia bukatzeko aukeratutako filma horixe da: *Los chicos del coro*. Honetxeekin eta asteburu honetan, igandean solik, eta 19:30ean, eskainiko duten saio bakararekin, negu osoan zehar, ostiralero eta igandero eskura izan den kultur eskaintzaren azken saioa izanen da.

Bukatzeko ere, oso film arrakasatsua aukeratu dute gainera, zinemazaleen gustagarri izanen dena; izan ere, film honi buruzko kritikak diotenez, oso ongi egindakoa izateaz gain, eta kontakizuna ere oso modu freskoan egina dagoela diote, horrela, ardatzetako bat musika bera izanik, esate baterako,

nabarmentzen dute koroko bakarlaria soilik dela, horretan aritua, hain zuzen ere; gainerakoak, errodatzen ari ziren lekuko umeak direla, sekulan ez kantari ezta aktore lanetan ere aritzekoak.

Filme hau Christoph Berra-tierrek zuzendu zuen 2004ean, protagonista Gerard Jugnot, François Berleand, Jean-Baptiste Maurier aktoreak izanik, besteak beste. 95 minututan, Bigarren Mundu Gerra ondoren, 1949. urteko gizartean itxuratuta, adin txikioen berheziketako internadu zentro bateko ikasleen bizimoduaren kontakizuna da: Clement lan-gabezia dagoen musika irakaslea, zentro horretan zain-tzaile gisa hasten da lanean, eta bertako ikasleen antzera,



Filmeko irudi bat. HITZA

ez du batere gogoko, Rachin zuzendariaren hezkuntza sistema autoritario eta errepresiboa, emaitzarik ematen ez duena, gainera. Horrela, gaztetxoen gura hurbiltzeko ahaleginetan, musikak ikaragarri erakartzen dituela ohartuta, horretxi ekiten dio buru-belarri, bide batez ikasleen biziak ere goitik behera aldatuz.

Dena kontatu gabe, hobere-na, ordea, igandean zinemara joatea izanen da. Azken saioa da eta, aurtengoz.

LEITZA ▶

‘Kixotea’ txontxongiloa ikusgai liburutegian

J. ASTIBIA

On Kixote txontxongilo emanaldia ikusgai izanen da liburutegian, hurrengo asteartean, maiatzaren 3an, 18:00etatik aurrera.

Humo taldeak eskainiko omen du ikuskizuna, gazte-raz, jakitera eman dutenez, eta «haur, gazte eta gurasoei zuzendua» dagoela nabarmendu. *On Kixote* eleberrian oinarrituta, pertsonaia harraren hainbat pasadizo eta bizimoduko pasarte kontakituko omen dituzte.

Cerbantes idazle espainiarrrak *On Kixote* idatzi zuenetik, laugarren mendeurrena aurtan betetzen denaz baliatuz (1605ekoa da), Nafarroako Herri-Liburutegien Sareak prestatutako ikuskizuna omen da, Leitzakoan antzetzuko duten hau.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Germikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttipa ald.: 948 631888

▶ Txolarre irrati: 943 69 80 38

▶ Karrape irrati: 948 61 09 14

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Santa Maria, I.: Nafarroa

etorb., 2, (Tolosa) 943 654 610

Gimeno, A.: Elbarren, 52,

(Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aizt@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaaldea. 687 41 00 22

anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Motorra. CBR 600 Sport

motorra. 2001. urtekoa,

aseguroarekin. 25.000 Km.

Extrekin. Ondo zaindua.

7.200 euro. 600 90 36 28. [Joxe.](#)

Harpidedunel banatua ▶ 2005eko apirilaren 30a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



berena

19

hotzena

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



hitza



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. 1966an, 1967an, 1968an eta 1970ean jaiotakoek afaria antolatuta dute. Izena emateko, Tereri edo Elixabeteri deitu: 656 76 14 82 iluntzetan edo 943 68 35 56.

Elduain. Mus txapelketa egingo dute maiatzaren 7an eta 14an Urdelar bitokian, 22:00etan, eta izena emateko azken eguna maiatzaren 6a izango da, bitokian bertan. 10 euro ordaindu beharko dira.

Gaztelu. Askaria eta *Glup*, *superdetektibea* filma izango da Kontzejun 18:00etatik aurrera gaztekoentzat.

Gaztelu. Afari herrikoia eta ondoren film laburrak eta zinema erotikoa izango dira ikusgai 21:30ean Kontzejun.

Tolosa. Maiatzaren 1ean Gaixoen Eguna dela eta, *Gaixoen igurtzia sakramentua* ospatuko da 17:00etako eukaristian Santa Maria parrokian.

Tolosa. Euskarazko webguneak laguntzeko deialdia atera du Udal Euskara Zerbitzuak.

Aurkezteko epea: ekainak 30. Informazioa: 943 65 44 66.

Tolosaldea. Eusko Jaurilaritzak lokal komertzialetan inbertitzeko laguntzak ematen ditu. Informazioa eta eskaerak 943 16 06 73 telefonon.

ERAKUSKETAK

Alegia. Luis Maria Nuñezen hamar koadroren erakusketa



Tolosa-Ernio-Tolosa

TOLOSA ▶ Aralarko Adiskideek Tolosa-Ernio-Tolosa lasterketa antolatuta du maiatzaren 14an. 20 km eta 1.000 metroko desnibela dira. Izen-ematea zabalik da Tolosaldea Tourren egoitzan. Irudian, iazko edizioako une bat. HITZA

ikusgai dago Jubilatuen tabernan.

Hernalde. Merte Etxeberria hernialdetarraren olio-pinturak ikusgai daude Ostatu tabernan.

Tolosa. Miren Gonzalez eta Matxin Labaien pintore tolosarren koadroak daude ikusgai Aranburu Jauregian.

Bisita orduak, egunero, astelehenetan eta jai egunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era.

Tolosa. Omar eta Marcos pintore kubatarren erakusketa Fronton kafetegian. Kubarekiko elkartasun erakusketa da.

Tolosa. Kubako Santa Clara herriko ikaslearen olio-pinturak jarri ditu ikusgai Cuba P'alate Lagunen Elkartek Lanbroa tabernan. Salgai dira; lortutako dirua Kubara bidaliko dute.

Tolosa. Jose Antonio Gorgojo tolosarraren pinturak daude

ikusgai Sorron koadro dendan. Hilaren bukaera arte.

Tolosa. Ana Jesus Ansoena tolosarraren keramika lanak daude jarrita Saikin tabernan, hilaren amaiera bitarte.

HERRI URRATS

Asteasu. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateak autobusa antolatuta du maiatzaren 8an Senperera Herri Urratsera joateko. Izen-ematea, 943 69 39 30 telefonon. Maiatzaren 3 arte mankomunitateko herritakoentzat eta 4tik 6ra gainontzekoentzat.

Tolosa. Galtzaundi Euskara Taldeak Herri Urratsera joateko autobusak antolatuta ditu. Izen-ematea, 17:00etatik aurrera egoitzan (Nafarroa etorbidea 6, behe).

KIROLA

Tolosa. Aralarko Adiskideek elkarrekin Tolosa-Ernio-Tolosa lasterketa antolatuta du maiatzaren 14an. 20 km eta 1.000 metroko desnibela dira. Izen-ematea, Tolosaldea Tourren (Santa Maria plaza; telefonoa: 943 69 74 13). 10 euro ordaindu behar dira parte hartu ahal izateko.

Tolosaldea. HITZA Pilota Txapelketaren hasierako partiduak. Gaur, benjaminak Alegian 16:00etan, infantilak Adunan 16:00etan eta etorkizunekoak Beotibarren 11:00etan. Aurrera Saiaz elkarrekin antolatuta.

IKASTAROKAK

Tolosa. Udak Kultur Batzordeak antolatuta, Inigo Royo argazkilarik tolosarrak Argazkigintza II-Sakonketa ikastaroa emango du maiatzaren 3tik ekainaren 14ra. Besteak beste, argazkigintza digitala landuko du. Izen-ematea, Kultur Etxean (943 67 03 99).

Tolosa. Linguanet, lan munduko euskara planen inguruko oinarriko 50 orduko ikastaroa prest da. 35 ordu Internet bidezko ikasgaietan gauzatuko dira eta gainontzeko 15ak aurrez aurreko tailer praktiko bidez. *Berria*-ko harpidedunek %10eko beharpena izango dute matrikulazioan.

IRTEERAK

Berastegi. Errioxara egunpasa antolatuta du Gaztainondo elkarrekin maiatzaren 3rako. Dinastia Vivanco deritzon ardo museora bisita egingo dute, eta bazkaria ere bertan izango da. Izena eman nahi duenak Gaztainondo elkarrekin egin beharko du: 25 euro bazkideek eta 30 euro gainontzekoek.

Tolosa. Irazki kulturazdun elkarrekin Zugarramurdiko kobazuloetara irteera antolatuta du maiatzaren 12rako. Bazkaria Baztan hotelean izango da. Izen-ematea, elkarrekin (32 euro; bazkideek 29 euro).

Tolosa. Amarozko Auzo Elkarteak Araxesko VII. Mendi Itzulua antolatuta du maiatzaren 15ean. Izen-ematea, elkarrekin bertan edo egun berean.

Tolosa. Maiatzaren 21etik ekainaren 11ra Saloura irteera antolatuta du Haritze jubilatuta elkarrekin. Prezioa: 350 euro bazkideek eta 355 bazkide ez direnek. Izen-ematea: elkarrekin 10:00etatik 12:00etara.

MUSIKA

Tolosa. Tsezne vs. Paralux. ACT eta Dj Amsiaren emanaldia Bonberenean, 22:30ean.

ZINEMA

Tolosa. *El penalti mas largo del mundo*. Gaur, 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zinema aretoan.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Irati Reguero Otamendi (Tolosa). Gaur 12 urte. Joana eta gurasoen partetik.



URTE ASKOAN

Aintzane Agirre (Elduain). Gaur 7 urte. Zorionak aita, ama eta lbaireren partetik.



ZORIONAK ZUEN URREZKO EZTEIETAN

Roberto eta Benita (Amezket).

Zuek hasi zendutena gaur famili bat da dena, eskerrikasko aitona-amonak aita eta ama.



ZORIONAK

Joxe eta Joxepa (Lizartza).

Gaur urrezko ezteiak. Familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Maite.

Zorionak Aitor eta Alaitzen partetik. Muxu handi bat!



URTE ASKOAN, MAITE

Zorionak prexioss! Mac Arrow, Mac Anarko, Mac Maite eta Mac Medinaren partetik.



ZORIONAK

Eider.

Zure ama Mari Ixabel eta Pituso. Ja, ja, ja!